

«LEZOKO JAI ETA KULTUR EGUTEGIA»

Orain dela lau urte gure herriko jai eta kultur ekitaldien berrantolatzeari ekin genionean, asmo bat genuen garbi garbia: gure jai eta ohitura herriko guztiak berpiztea. Hortarako Kultur Batzordeak osatzen dugun elkarte eta herri erakunde guztiak bilduta, gutxieneko egutegia eratu genuen, eta orduz geroztik, hobekiago edo okertxiago, horren atzetik ibili gara.

Herriko jai ardatz edo nagusitzat, iraileko Santa Krutzak hartu genituen, beti izan den bezala, eta bigarren maila batean Mendekozte Jaiak, Mendekozte jai erlijiosoaren inguruan, maiatza aldean normalean, ospatzen direnak. Eta hirugarren maila batean eta honela urteko jai, kultur eta kirol egutegia osatuz, bestelako jai edo ekitaldiak. Halanola: Xanxebastianak, Kaldereroak, Santa Ageda lhauteiak, Lezoinu, San Joanak, Olentzeroak... eta auzoetako jaiak ahaztu gabe: Pysbekoak, Gaintxurizketakoak, Altamirakoak,...

Baina holako egutegi zabalaren aurrean ez litzaiaguke gaizki etorriko errepasso moduko begiradaxo bortitza ematea. Aurrera bada!

1.— XANXEBASTIANAK: Egia esan, gure urteko jai eta kultur egutegia irekitzen duen jai honek ez du tradizioz izan gure Lezo hontan. Orain dela bi urte egin zen lehenengo aldiz, Musika Akademiaren inizatibaz, eta aurten bete izan da bere hirugarren urtebetzea. Jai hau Xanxebastian bezperan gauzatzen da, urtarrillaren 19ko ilunabarrean alegia, eta bere antolakuntza guztia Musika Akademikoen esku dago.

Ekitaldi bakarra, danborrada da, Sarriegik Donostiarako egindako doinuak jotzen dituen, eta akademiako ikasleak, haurrak gehienbat, dira bere partaide ia bakarrak. Danborrarien jazkera folklorikoa izaten da: galtza, alkandora eta espartina zuriak, txapela, gerriko eta lokarri horlegi dizdiratsuekin konbinaturik.

2.— SANTA AGEDA: Katak dioen bezala: «... Santa Agedan bezpera dugu, Euskal Herriko eguna, kantaz eta dantzaz pozteko, aukeratua duguna...» Eta horrela da, santa siziliar honen oroimena bizi bizirik gorde bait da gure artean. Lezon jai honek badu bere tradizioa eta normalean urtero errepikatu egiten dira bere koplak gure kale eta plazetan.

Gaur, Lezoko Abesbatza izaten da konpartsa ateratzen duena. Otsailaren 4an, konpartsa kalez kale dabilkigu Santa Agedaren bezpera dela gogaraziz. Jazkera ohizkoa: txapel beltzak, brusak, kaikuak, baserritar lepozapiak,... eta ohizko makil kierra luzeak, koplak erritmoari zintzo eta egoki jarraitzeko, ohitura zaharrak agintzen duen bezala.

3.— KALDEREROAK: Jai honen xanxebastianen bizitza bera du, hiru urte beraz. Ez du Lezon tradizio haundirik izan eta Musika Akademikoak ditugu sortzaileak. Kandelariaren ondorengo larunbatean, ilunabar aldean, ospatzen da, otsailaren erdi aldean normalean beraz, eta hauxe da urtean zehar lezoarrok ospatzen dugun hirugarren jai ekitaldia.

Ekitaldi hau hungarianoen konpartsa batez osatzen da. Parte hartzaileak Akademiako gazteenak izaten dira, eta hungarianoz edo

«Santa Krutzak 1990».
Kantinerak: Monika Olasagasti
Kantinerak: Anjel Mari Errasti



ijitoz jazten dira, zapiak buruan, gona loretsu luzeak, koilare haundiak eta txanbra koloretsuak emakumezkoen dagokienez, eta galtza ilun, alkandora argi eta txaperu zabalekin gizonaenak.

Herrian zehar ibiltzen dira beren zartagin hotsez herria zipirituz, eta plazan ematen dute beren emanaldirik ederrena, su baten inguruan abestuz. Eskertzekoa da hungariano hauen borondate jatorria, beren kanta guztiak euskeraz bait daude, beren hizkuntzaz kantatzen dituzten bat ezik.

4.— IHAUTERIAK: Badira zazpi urte Lezoko Herriak lhauteriaren antolatzeari ekin ziola. Hasiara batean Donostiako lhauteri Urbanoari jarraitu bazitzaion ere, azkeneko lau urte hauetan beste bideetatik abiatu da. lhauteri berria sortu da, bere pertsonaia eta bere sinbologia bereziarekin; eta badirudi Lezok, eta lezoar haurrek bereizki, oso ondo hartu dutela.

Pertsonaia ardatza Trapujale izenekoa bada ere, badaude bestelako pertsonaiak, halanola: zirikoak, Marinazkane sorgina, aguazila, epailea,... bere inguruko trama maisuki osatzen dutenak. Ekitaldiari hasiera emateko, Trapujale bere jarraitzaileez lagundurik, Jaizkibel menditik jeisten zaigu ostegunean, Atzekoatetik herriko plazara sartuz. Hurrengo egunetan beste zenbait ekitaldi ematen dira. Baina agian garrantzitsuenak, larunbata arratsaldean herrian zehar ibiltzen den Trapujalaren Kalejira, eta asteartean, lhauteriari bukaera emateko ematen den Herio Bidaia eta Subanbada izeneko ekintza, non eta Trapujale epaitu ondoren, burua moztu eta surtara botatzen den.

Jazkerak: koloreetako zintzak, txuntxurroak edo kukurutxoak buruan eta zakuzko jazkiak izaten dira, zirikoenak eta sorginarenak ezik. Sorginak, buruan euskal emakumeek Erdi Aroan eramaten zuten txuntxurro horietako bat da-



«Lezoko Ihauterian»
Trapujale gure
kaleetan

rama, eta jazkera osatuz, txanbra argia eta gona ilun luzea. Asto batek tiratako organ ibiltzen da herrian zehar. Zirikoei dagokienez, zakuz jazten dira, besteak bezala, txaperu zabalak buruan, eta arpilezko ehunkera batez aurpegia estaliz, bizkarrean berriz, ardi larrua daramatelarik.

Kultur Batzordeak antolatzen badu ere, esan beharra dago lanik gehiena Ekaitz Atsedeen Taldea, Dantza Eskola eta Musika Akademiakoen esku dagoela. Lezoko Ihauterian egunek beren izen bereziak dituzte: ostegunzuri, ostiralori, larunbatgorri, igandubel, astelehenarre eta asteartebeltz. Eta egun hauetan beren izenek agintzen duten koloreko bi bandera haundi ipintzen dira zintzilik udaletxeko balkoian.

Aipatu beharra dago baduela bere himnoa, eta bestelako soinuak, Musika Akademiako zuzendaria eta Xanti Espina Anduezak egindakoak, eta bere trama finkatu nahian, Kultur Batzordeak komiki bat kaleratu zuela 1990ko ihauterietarako. Marrazkilaria Lander Zurutuza izan zen eta gidiegilea Mikel Susperregi. Jai berria izan arren, ospe haundikoa daukagu Lezon, batez ere haurren artean.

5.— LEZOINU: Bere izenak ederki esaten digun bezala (LEZO - SOINU) ekitaldi hau guztiz musikala dugu, Musika Akademiak antolaturikoa eta apirilko bukaera eta maiatzeko hasiera aldean ospatzen dena. Aurten ospatu duguna bostgarrena izan da.

Aste pedagogiko-musikal bezala sortua da, eta helburu bikoitza du. Alde batetik Akademiako ikasleak jende aurrean jotzen ohituratzearena, eta kanpotik ekarritako talde eta abesbatzen bitartez, Lezoko herriaren belarriak musikara zaletzearena eta gozaraztearena bestaldez. Kontzertu guztiak Gurutze Donearen Elizan ematen dira.

6.— MENDEKOZTE JAIK: Jai hauek Mendekozte Egunaren inguruan ospatzen direnez. Urtero dataz aldatzen dira, nahiz eta normalean maiatza aldean ospatu. Herriko bigarren jai patronalak dira, baina nahiz eta iraileko Santa Krutzak baino tikiagoak izan, bere ospe haundia gorde dute lezoarron artean.

Jai hauei hasiera emateko, lehenengo eguneko ilunabarrean ikurriña eta

Lezoko bandera zabaltzen dira udaletxeko balkoian. 1990. urtetik zintzilikatu egiten dira ere sei Euskal Herrietako banderak, eta Arrano Beltza zaharra, herriko plazari kolorismo haundia emanaz.

Jai hauetan toki haundia hartzen dute Allerruk goiz aldero plazan antolatzen dituen sokamuturrek, gaueroko dantza saioek, herri kirolek eta idi demak. Jai hauetako egun bat baserritarren eguna da, eta egun honetan, herri kirolek eta lxxkulek antolaturiko idi demak gorputza ematen diote. Haurrei eskeinitako ekitaldi eta jolasak ez dira falta bestaldez, Mendekozte Jaiei beste dimentsioa emanaz. Jai hauetan antolatzen da ere, Helduen Mailako Fandango eta Arin-Arin Txapelketa, bertako Dantza Eskolak eraturik, eta herrira hainbeste dantzari erakartzen duena.

Oso garrantzi haundikoak dira ere, Allerruk antolaturiko pilota partiduak, eta igande bezperako gauean herriko preso eta errefuxiatuen alde, bertako Amnistiaren Aldeko Batzordeak deituriko manifestazio arrakatatsu eta jendetsua. Aipatzekoa da ere, aurten hirugarren aldiz ospatu den gizon proba, herriko Herri Kirol Taldekoek antolaturik.

Jai hauek direla eta, Kultur Batzordeak kaleratzen du urteari dagokion «Lezo» aldizkariaren lehenengo zenbakia, non eta herriko idazle, olerkari eta bertsolari frankok parte hartzen dute, bere idazlanak, eta bestelakoak plazaratuz. Aldizkari hau dohain banatzen da buzoiz buzoiz, dendaz denda eta tabernaz taberna.

Jai hauen azkeneko egunean, ilunabarrean, ohizko zezen suzkoa erretzen da plazan, jaiei bukaera alai bezain koloretsua emanaz. Une berean jeitsi egiten dira udaletxeko balkoian zintzilik dauden banderak. Akabo aurtengo Mendekozteak!

7.— SAN JOAN JAIK: Oraingo hauek garai zahar zaharretatik ospatu egin diren jai solstizialak ditugu, eta eguzkia eta suaren inguruan ospatu egiten dira, herri guztietan egiten den bezala. Jai hauetan bestelako kultur ekitaldiak ipintzen dira ere, hitzaldiak, txistularien kalejirak, joaldunak,... Hauen artean garrantzitsuena agian, astebete aurretik eta aurten laugarren aldiz, Altamirako soroan ospatzen den Euskal Herriko Txapelketaren barneko lur gaineko soka-tiraren saioa, herriko Herri Kirol Taldeak eraturikoa.

«Lezoko Inkruterian»
Mcrinczkome,
Jcizkibeleko
sorgina bere
gurdian



San Joan bezperan, ekainaren 23an beraz, plaza erdian ohizko lizar errituala ipintzen da, bere gailurrean ikurrina haizager daramana. Bere ardaxketatik ohizko gereziak ipintzen zaizkio zintzilik, eguzkiarengatik itxaro den onura simbolizatuz. Ilunabarrean, herriko dantzariak beren dantzak egiten dituzte zuhaitz inguruan eta bukaera aldean, San Joan Dantzari airoxoki ekiten dioten bitartean, lizarra inguratzen duen txirbilazko zirkuluari su ematen zaio. 24an, San Joan Egunean, Gazteen Aurrezku Txapelketa ospatzen da, aurtengoa bigarrena dugularik.

8.— UDARAKO KIROL ETA KULTUR IKASTAROAK: Ikastaro hauek Kultur Batzordeak antolatzen ditu, Eskola eta Aldundiaren laguntzaz, haurren euskara bizi bizia mantendu nahian udara partian, eskolatik kanpo. Bi mailetan banatzen dira, alde batetik «Eskolaurre» deritzana, haur ttikientzat, eta O.H.O.-ko mailako ikastaroa, sei eta hamahiru urte bitarteko haurrentzat.

Ikastaro hauetan hogeitabat monitore eta hezitzailek hartzen dute parte, danak euskaldunak, eta Erreterriako Polikiroldegiko igeritokira eramateaz gain, haurrek igeri egiten ikas dezaten, eskulanak erakusten dizkiete: buztigintza, papera edo kartoizko lanak, marrazkiak, mozoroak,... baita jolasak eta ibilaldiak ere



Heria izan da jai guztietako benetako protagonista

Urtero 150 bat haurrek hartzen dute parte. Gainera, Eskolaurreko eta O.H.O. mailako bi ikastaro horiez aparte, pilota ikastaro bat antolatzen da, non bost-sei bat haurrek parte hartzen duten monitore bakar baten zuzendaritzapean. Ikastaro hauek uztaila osoan zehar luzatzen dira.

9.— PYSBEKO JAIK: Jai ttiki hauek uztailako lehenengo astean ospatzen dira, Pysbe-Jaizkibelazpiko Auzo Elkarteak antolaturik, eta Lezoko Udalak lagundurik. Beren ekitaldirik garrantzitsuenak haur jolasak eta gaueko dantza saioak izaten direlarik.

GAINTXURIZKETAKO JAIK: Jai hauek zaharrak dira, baina garai batean errepide ondoko Errekaldeko zabaldian egiten baziren ere, badira zazpi edo

zortzi urte luze, eskenatokia aldatu rik ospatzen direla, Elortegi baserriko soroetan hain zuzen. Jai hauek ospatu dira betidanik abuztuan, Abuztuko Ama Birjinaren Eguna (abuztuak 15) eta San Rokeren Egunaren artean (abuztuak 16).



Idi Proba.
Olatzarko idiak

Antolatzaileak bertako zenbait baserritar izaten dira, Elortegi inguruan ibiltzen direnak gehienbat. Ekitaldiak bereziki bi eratakoak direla esan daiteke: hurrei zuzendutakoak lehendabizikoak, eta bigarrenak, nekazal munduari eskeinitakoak. Azken horien artean aizkol eta sega apustuak, soka-tira, idi dema, eta gaueroko bilera edo erromeriak garrantzitsuenak izaten direlarik. Inpernuko Auspoa (= soinu ttikia) izaten da jai hauen erritmoa markatzen duena.

Tradizio haundiko jaiak dira, beren inguruan jende asko mugitzen dutenak. Bertako bizilagun edo auzokideek parte haundia hartzen dutenez gero, festa bizi-biziki izaten dira. Lezoko partizipatiboenak seguru aski,

11.— ALTAMIRAKO JAIK: Auzo hontako festak aski berriak ditugu, auzoa bezain berriak agian, eta bere jaiak iraileko lehenengo astean ospatzen dira, auzoan dagoen kale bakarraren izena daraman Tomas Garbizu musikalegilearen urtebetzearekin kointzidituz.

Oso jai mugatuak izaten dira, bertakoei zuzendutakoak gehienbat, antolatzailea bertako Auzo Elkarte delarik. Ekitaldirik garrantzitsuenak: herri kirolak, haur jolasak, eta gaueko dantza saioak izaten dira.

SANTA KRUTZAK: Hauek ditugu lezoarren jai haundiak, eta betidanik Gurutze Santuaren Gorezpen Egunaren inguruan ospatu dira, irailaren 14an alegia. Hortik dator kie bere izena. Jaiei hasiera ematen zaie Santa Krutz bezperan, 13an, banderak udaletxeko balkoian igoz. Egun berean eta beste zenbait ekitaldi ugarien artean, Andreone Kultur Etxean banatu egiten dira udalak antolaturiko Elias Salaberria Pintur Oroitaldian irabazle suertatu direnen sariak, denbora berean aurkeztutako koadro guztien erakusketa zabaldu egiten da. Aurtengo XXII.a izango da.

Arratsaldeko 7retan, Santo Kristoren Basilikan ospatzen dira ohizko bezpera kantatuak, eta ilunabarrean, Allerruk antolaturiko danborrada herrikoia, festa hauen ekitaldirik fuertenetakoa. Santa Krutzaren egunean, goiz goizeko soka-muturra, ohizko Meza Nagusia eta herri kirolak plazan. Arratsaldean Josetxo Etxandi Pilota Oroitaldiaren partidu famatuak.

Ekitaldiak estuki gauzatzen dira jai hauek ospatzen diren lau edo bost egu-
netan zehar, txistularien kalejirak, goizeroko sokamuturrak, gauero dantza
saioak, haur jolasak, antzezlanak, larunbata gaueko manifestazioa, truk txapelketa, tokarena, txirrinda proba, futbol partiduak,...

Igande eguerdian beste ekitaldi haundia ematen da, Parrokiko Katekesiak
antolaturiko haur desfilea, non herriko haur asko eta askok parte hartzen duten,
jazkera ezberdinez jantzirik, eta Euskal Herriko eguneroko bizimodua azaldu
nahian: baserritarrak, arrantzaleak, apaizak, artzaiak, inudeak, erizainak,
suhiltzaileak, soldaduak, alkatea, gotzaia,...

Duela urte luze egi-
ten da, eta oso sona
haundikoa dugu, bai
Lezon eta bai bailara
osoan. Egun bereko
arratsaldean ospatzen
da Haur eta Gazte Mai-
lako Dantza Askatua-
ren Txapelketa, Lezo-
ko Dantza Eskolak
eraturik, eta baita sona
haundikoa dena ere.

Azkeneko eguna
baserritarrena izaten
da, eta nekazal arloko
ekitaldiek gainezka-
tzen dute eguna: herri
kirolak, azienda peria,
dultzainariak, idi de-
ma, ahari talka, ber-
tsolariak, baserritarren
arteko bazkaria,...



«Santa Krutzak 1990». Udaletxeko balkoian zazpi Euskal Herrietako ikurak

Hamabietan bukaera ematen zaie jaiiei, banderak jeisten eta ohizko zezen
suzkoa erretzen herriko plazan. Jai hauetarako, Kultur Batzordeak kaleratzen
du, urtean zehar ateratzen duen «Lezo» aldizkariaren bigarren zenbakia, beti
bezala, Lezoko buzoi guztietan dohainik banatzen dena.

1.2— EGUERRI JAIK: Festa hauek dira urtean antolatzen diren azkenak,
eta 24an ematen zaie hasiera, Santo Tomasen egunean hain zuzen. Egun hortan
Lezoko AEK-k antolaturiko peria gauzatzen da herriko plazan, non untxiak,
hegaztiak eta barazkiak nahasi egiten diren, txistorraren usainez apaindurik.

Olentzero bezperan, 23an beraz, Altamirako bizilagunek iaz egindako Olen-
zero erraldoia, bere kriseilu, arraultz, opari eta guzti..., Udaletxeko arkupeetan
ipintzen da, herri alderantz begira. Eguerdian herri kirolak izaten dira, eta arra-
tsaldean Olentzero Bezperako Idi Dema famatuari ekiten zaio.

24an, Olentzero Egunean, Olentzeroren kalejira herriko kale eta plazetan zehar pasiatzen da, bere ohizko kantuekin herria poztuz. 25ean, Eguberri Egunean, Olentzeroren kalejira berriro martxan ipintzen da, baina orain opariak herriko haurren artean banatuz.

Urtea eta jaiak egun berean amaitzen dira, abenduko 31ean noski! Urtezaharrean. Egun hortan eta urtearen aldaketa agurtuz, herriko gazteak baserri baserri ibiltzen dira, arratsaldeko 3,30etatik ilunabarra arte, ohizko koplak zaharrak (Dios te salve, ongi etorri!) direlakoak abestuz, eta herriko preso eta errefuxiatuen aldeko dirua bilduz. Modu polita Urtezaharrari adio eta berriari kaixo esatekoa. Hala-fede!



Hauek dira bada, urtean zehar antolatzen diren ohizko jai edo ekitaldi nagusiak. Ekitaldi hauetan eta Euskal Herri osoan ohitura den bezala, kultura, jaiak, kirola eta erreibindikapena uztartu egiten dira, gure gizartearen ispilurik onena izango balira bezala, gure eguneroko bizimoduaren islada egoki eta jatorria emanaz. Danetarako dago tokiak, bai festarako eta bai erreibindikaziorako.

Urtero ospatzen ditugun ekitaldi hauez

gain, bestelakoak egiten dira ere, baina normalean ez dira hurrengo urtean errepikatzen, edo dataz aldatu egiten dira. Horregatik hemen modu labur eta bortitz batez aipatu ditugunak dira Lezoko kultur biziaren adierazlerik zuzenak. Gure termometroa.

Baten batek, agian esango du festa gehiegi direla edo..., baina nire ustez, ez da holakorik. Lan egiteko, egunero bizitzeko, maitatzeko, borrokatzeko, bihar-ko egunean irabazteko, ... euskaldunok eta lezoarrok arnas berria hartzeko astirik behar dugu, eta gure birrikak oxigenoz ondo bete gabe, ez dago ondo arnas egiterik, ez bizitzerik, ez maitatzerik, ez borrokatzerik eta ez irabazterik. Etor-kizuna gurea izan dadin, zabal ditzagun kultur eta jai bideak, azken finean oxigenoa bezain beharrezkoak egiten bait zaizkigu.

— JOSEBA PRESENTACION BARANDIARAN —